

Irakurri arreta handiz taula honetako datuak eta gero aztertu beherago ematen den lan estatistikoa.

Etxetik Interneterako sarbidea duten familiak (*), herrialdearen eta urtearen arabera. Urteko batezbestekoa (%). 2002-2006					
	2002	2003	2004	2005	2006
Alemania	46	54	60	62	67
Austria	33	37	45	47	52
Belgika	:	:	:	50	54
Bulgaria	:	:	10	:	17
Zipre	24	29	53	32	37
Danimarka	56	64	69	75	79
Eslovakia	:	:	23	23	27
Eslovenia	:	:	47	48	54
Espainia	:	28	34	36	39
Estonia	:	:	31	39	46
Finlandia	44	47	51	54	65
Frantzia	23	31	34	:	41
Grezia	12	16	17	22	23
Herbehereak	58	61	:	78	80
Hungaria	:	:	14	22	32
Irlanda	:	36	40	47	50
Italia	34	32	34	39	40
Letonia	3	:	15	31	42
Lituania	4	6	12	16	35
Luxenburgo	40	45	59	65	70
Malta	:	:	:	:	53
Polonia	11	14	26	30	36
Portugal	15	22	26	31	35
Erresuma Batua	50	55	56	60	63
Txekiar Errepublika	:	15	19	19	29
Errumania	:	:	6	:	14
Suedia	:	:	:	73	77
Euskal AE	:	33,3	38,3	41,4

(*) 16-74 urte bitarteko kideak dituzten familiak.

Iturria: http://www.eustat.es/estadisticas/idioma_e/tema_133/opt_0/temas.html
(Taula berdin bat edo eguneratua aurkituko duzu)

Europako herrialde guztietan Interneterako sarbideak zein aldaketa izan dituen aztertu nahi badugu, balio horiek urtetan zehar izan duten batezbesteko aritmetikoaren bilakaera erabil dezakegu estatistiko gisa. Hona hemen 2002, 2003 eta 2004 urteetako kalkulua.

- 2004. urtea: % 34
- 2005. urtea: % 42

Kalkulu horiek egiteko, urte jakin batean daturik eman ez duten herrialdeen laukiak kendu ditugu.

- ❖ Kalkula ezazu 2006. urteko datuen batezbestekoa.
2006. urteko batezbestekoa:.....
- ❖ Internetera sartzeko batezbestekoarekin zer gertatu da? Gehitu ala gutxitu egin da?:

Erabilera gehitu bada ere horrek ez digu ezer esaten herrialde batetik besterako aldeak gehitu edo gutxitu diren jakiteko; beste era batera esanda, batezbesteko aritmetikoak ez du informazio hori ematen. Herrialdeen arteko aldeak gehitzen edo gutxitzen diren jakiteko, aldiz, barreiatze-parametroren bat erabili behar dugu. Parametro hauek, hain zuzen, balioen banaketa bat erabili behar dugu, balioak batezbestekotik hurbil dauden edo ez neurtzen dute.

Batez besteko desbiderapena sarri erabiltzen den desbiderapen parametroa da; balio bakoitzaren eta batezbesteko aritmetikoaren arteko aldearen balio absolutuek duten batezbestekoa kalkulatu du.

Informazioaren teknologia berriak

Batez besteko desbiderapenari buruzko kalkuluak egiteko hobe duzu kalkulu-orriko funtzio hori erabili. Jarraian, 2004 eta 2005 urteetako batez besteko desbiderapenak ematen dizkizugu (urte horietan daturik eman ez duten herrialdeen laukiak kendu ditugu).

Parametro hori kalkulatzeko erabili behar den kalkulu-orriak honako funtzioa du: DESVPROM. Balio hori lortzeko hurrengo urratsak eman behar ditugu.

- a) Aukeratu lauki bat.
- b) Sakatu "Sartu" eta gero "Funtzioa" eta "DESVROM".
- c) Azkenik, hautatu batez besteko desbiderapena kalkulatu nahi diozun datuen multzoa (matrizea).

2004. urteko batez besteko desbiderapena: 14,54
2005. urteko batez besteko desbiderapena: 15,76

- ❖ Kalkula ezazu 2006. urteko batez besteko desbiderapena.
2006. urteko batez besteko desbiderapena:.....



- ❖ Egin bi barra-grafiko, banaketa horiek 2004, 2005 eta 2006 urteetan izan dituzten batezbesteko aritmetikoen eta batez besteko desbiderapenen bilakaera erakusteko.

- ❖ Azaldu labur grafikoetan jasotako datuak:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....